

ESPERANTZARI IRMO EUTSIAZ

“Oroimena garela akordatzen naiz, oroimena ala ia ezer
ez”

J. Sarrionandia

Denboraldi baterako kanpora joan behar zuen guztietan, ontziz bidaiatzera ohiturik zegoen gure aitona. Agurra hitzik gabea izan ohi zen, gure ustez keinu batek mila hitzek baino esanahi gehiago baitzuen kasu hauetan. Aitonak barkuaren popara igo eta eraman ohi zuen txapela beltza eskuan hartu, astindu eta airera bota ostean, berriro ere bere buru gainean paratzen zuen. Horrela izaten zen gure agurra, keinu soila, adio mutua. Bidaia honek, berriz, aurrekoen aldean bazuen desberdintasunik, ez zuen itzulera zehatzik, aitona hogeita lau marinel gehiagorekin batera atzerrira joan behar zuen.

Irteeraren aurretiko egunetan amonari inoiz ikusi ez nion portaera nabari nion. Edozerk aztoratzen zuen eta elizan edo etxeko-lanak egiten aritzen zenetan soilik izaten genuen bera ikusteko aukera. Gainerantzean, bere gelan sartu eta ordu luzeak igarotzen zituen bertan, inorekin hitz egin gabe, bere pentsamenduetan murgildurik, etorkizunak sortzen zizkion beldurren aurrean orainean kateaturik.

1980ko ilbeltzaren 18a ere heldu zen azkenean, jende andana zegoen bildurik kaian, horrek giro malenkoniatsua bero bihurtzen zuen. Hala ere, familiako kideen artean larritasun eta tristura keinuak nabari zitzaizkigun. Aitonak, betiko ohiturarekin jarraituz, ez zuen hitzezko agurrik esan, popara igo ostean, buruan zeraman txapela hartu, astindu eta airera bota ondoren berriro ere bere buru gainean ipini zuen. Amonak malkoei heldu nahian saiakera bortitza egin zuen, baina, hala ere, saiakera guztiak alferrikakoak izan ziren, ontzia urruntzearekin batera, negar batean hasi baitzen. Bera alaitu nahian, hitz xamurrak esanez hasi gintzaizkion, alperrik izan ziren hitz guztiak, inori ere ezer esan gabe, negarrez oraindik, etxera joan eta bere gelan giltzapetu baitzen.

Lehen astebetez ez genuen amona une bakar batean ere ikusi, eta gelatik irtetera ausartu zenean aitona etxean izango balitz bezela jokatzeko zuen. Mahaia jartzerakoan aitona lekuan

ez zen plater, goilara, sardeska, edalontzirik falta esaterako. Gu ez ginen ezer esatera ausartzen, geure samina barnean generaman, baina ez genuen azaleratzen, orain, aitonaren faltari amonaren obsesioa ere gehitu behar zitzaion.

Amonak ohitura berri bat ere hartu zuen, egunero meza entzun ondoren, bertan marinela etxera itzultzeko otoiz eginez, itsasertzera gerturatzen zen urrunean ontziren bat ikusteko esperantzan. Haatik, herriko jendeak erotzat hartzen zuen gure amona.

Hasierako egunek, hilabeteek, urtebete osatzen zuten dagoeneko eta aitonaz ez genuen berririk izan denboraldi luze hartan. Amonak urtaro aldaketek, denboraren igarotzeak ezer axola ez baliote bezala, kaira joaten jarraitzen zuen bere maitearen itzuleraren zain. Ontziak istripuren bat izan ote zuen zabaltzen hasi zen herrian zehar, baina amonak ezin zuen hori onartu. Nola galduko ote zuen egun batetik bestera hainbeste maite zuena! guk ordea, hori guztia dagoeneko onartua genuen, hasierako esperantzak, apurka-apurka murrizten joan baitzitzaizkigun. Amona ezdeusa sentitzen zen. Bere edertasun guztia galdurik zuen dagoeneko, orain, bihotza erditik puskaturik eduki, baina osorik mantendu nahi zuen andere xahar bat besterik ez zen. Guztiok guztiz etsiturik geunden egunetan bera hagitz itxaropentsu agertzen zen.

Urtero herriko jaietan egiten genuen bazkaria ere oso desberdina izan zen urte hartan, aitonaren lekuak hutsik jarraitzen zuen oraindik. Aldameneko baserriko Joxe ere eskusoinuarekin etortzen zen urtero, bazkaria alaitzeko, dantzaldi paregabea antolatzen genuen. Urte hartan aldiz ez zen dantzaldirik izan. Bazkal ostean, sukaldeko irrati xaharra piztu zuen amonak eta bertan euskal kanta ezagun bat entzutearekin batera negarrari ekin zion. Abestiak, “aita-semeak, tabernan daude ama-alabak jokoan...” zioen. Amonak esan zuen gisan, herri hartako hogeita bost etxetan urte bete igaro zuten dagoeneko aita-semeak tabernan elkartu gabe.

Festak ere igaro ziren eta baita urtaro piloa ere, dagoeneko 1983ko abuztuaren 24a da eta ez bide dago aitona bizirik egoteko esparantza edukitzeko arrazoi txikienik ere. Amonak ordea ez du horrela uste, inoiz baino peskiza gehiagorekin egin du kairako bisita, gaurkoan nik lagundu diot kaira. Bi ordu luze olatuei so egon ondoren, etxerako bidea hartzera goaz eta amonak eskutik heldu nau. Bere eskuaz, burua igurtzi ondoren honakoa esan dit; “Gaurkoan ere ez dirudi itzuliko denik”. Klean gora goaz eta oraindik ere atzera begiratz gero itsasoa ikus dezakegu. Amonak zerbaitek bultzatu izan balu bezala burua jiratu eta kale erdian geraturik itsasora begira geratu da. Nik ere bera begira dagoen gunean pausatu ditut neure begiak.

Ontzi bat dator urrunean eta kairako bidean datorrela dirudi. Amona eta biok berriro ere itsasertzera gerturatu gara zerbait edo norbaitek, soka batez lotu eta harantz eramango bagintu bezala.

Itsasontzia gerturatu bitartean eskutik helduta egon gara amona eta biok eta nolabaiteko ezin egon batek astintzen dizkigu barrenak. Kaira iristeko metro gutxi batzuk falta direnean, txapela beltz bat ikusi dugu airean. Momentu honetan, amona eta biok itsasora sartu nahi dugu, txapela hori uste dugun pertsonarena izango denentz jakin nahian. Baina itsasoan murgiltzeko lehen pausoa ematera goazenean, ontziak abiadura azkartu eta minutu baten buruan lehorreratu da. Bertatik azken urteotan hainbestetan ikusi nahi eta ezin ikusi izan dugun pertsona jeitsi da. Aitona maitea! Barkura igo eta olatuen mugimenduen ondorioz, zirti-zarta, dinbi-danba... itsasontziko hormen aurka jotzen dugu. Ez zaigu axola ordea, aitonaren besoetara joan gara biok korrika eta urte hauetan zehar sortutako galdera guztiak nola aldentzen diren nabaritu dugu. Ez dugu zergatien beharrik, erantzunen beharrik, soilik alboan dugula sentitu nahi dugu. Itsasontzi barrura begiratu eta aitonarekin joan ziren marineletatik hamar bertan ikustean asko poztu gara. Herrian berehala zabaldu da berria eta merezi duten ongi etorria egin zaie. Herri guztia ospakizun eta jai giroan murgildu da berehala eta amonari azken urte hauetan falta izan zaion irribarrea sumatu diot.

Aitona itzuli denetik egun pare bat igaro direnean, galdezka joan natzaio, lehenago ez itzuli izanaren arrazoia galdetu diot. Amonak ez duenez arrazoirik jakin nahi bere zereginetan murgildu eta orain dela urte batzuk hainbeste atsekabetu zuen abestia abesten hasi da: "aita-semeak, tabernan daude ama-alabak jokoan..." oraingoan aldiz begietatik isuri zaizkion bi negar tantek beste arrazoi bat izan dute, oraingoak zorionezko negar malkoak dira.

"Biloba maitea, istorioa luzea da, baina galdutako denbora berreskuratzeko kontatu beharrekoa. Bidaian irten eta Finlandia bitarteko bidaia oso lasaia izan zen, baina bertako irla batzuetara hurbiltzen ari ginenean guztia aldatu zen, olatu izugarri batek arrapatu eta bertan itsasontzia suntsitu eta marineletako asko hil ziren. Beste ontzi bateko marinelek salbatu gintuzten. Baina beste arazo baten aurrean ginen orduan, inongo baliabiderik gabe, herrialde ezezagun baten aurrean ginen. Bi urteren buruan, bagenuen nahikoa baliabide, baina orduan hona itzuli eta aurkituko genuenaren beldur ginen, gainera bagenekien itzulerako bidaia gogorra izango zela. Azkenean ausardiaz jokatu eta bidaiari ekin genion. Momenturik zailenetan zuek berriro ikusteko

ideiez betetzen nuen burua eta horrela lortu nuen gaur nagoen lekura iristea.” izan da aitonak eman didan arrapostua.

Berriro ere lasaitasuna eta poza nabari da gure etxean, amona inoiz baino alaiago dago. Aurrerantzean badakit amona ez dela gehiago kaira bakarrik itzuliko, eta itzuliz gero ere ez da urte hauetan zehar izan zuen helburuarekin izango, urte batzuk banandurik igaro ostean bere marinel maitea, bere alboan baitago.